

Gai ordena (puntu bakarra):

1.- 2017ko plangintza

- A.G.k arkitekta baja hartuko duela esan du. Baja hilabete batzutakoa izango da. Bitartean udaleko arkitektura kontuak aurrera ateratzeko Altzagako arkitektoarekin lan egitea da asmoa. Lantaldearen hurrengo bileretan ez da arkitektoarekin egongo.

- K.F.k lantaldearen dinamizazioa utziko du eta bere ordez I.A. arituko da. I.A. dagoeneko Agenda 21eko ekintzen koordinazioa eta kudeaketa darama eta asmoa da lantaldearen dinamika Agenda 21eko ekintza planarekin lotura hestuegia izatea.

- Azkenik aurten landuko ditugun gaien errepaso egin dugu. I.A.k aurreko bilerako inbertsio proposamenen zerrenda eta Agenda 21eko ekintza lista erabili ditu horretarako. I.A.k dokumentu bat prestatuko du ekintza guztien laburpenarekin.

Aurreko bileran 2017rako proposatutako ekintzeu dagokienez:

- Beko kalean irteera berria egiteko proiektua garatu: Otsailean ikusiko dugu hurrengo pausoak zeintzuk diren.

- Ur hornidura berritzeko 3. fasea: Bere martxa darama eta aurrera dihoa.

- Arbelen industria azarnak aztertu eta balioan jarri: Otsailak 18an irteera bat egingo da azarnak ezagutarazteko.

- Herribideen inbentario eta azterketa: Dinamika potentea martxan, herribideetako erabiltzaileekin bilerak egin dira eta ordenantza berria prest dago. Inbentario/azterketa lantaldean erabakitzen ditugun herribidetara mugatuko da.

- Urkiko aterpea egokitzeko lanak: Ekintza txiki batzuk pentsatuta daude dagoeneko.

- Ertotxe zutik eusteko premia lanak: Ez da ezer zehatza adostu.

- Frontoiaren irisgarritasuna egokitzeko proiektua: Agian aldundiaren dirulaguntza batzuk eskatzeko aukera dago. Irisgarritasuna bermatzeko aukerak otsailean berrikusiko ditugu.